



DEBAko UDALA

Iragarkia

2018ko azaroaren 16an, 2018/166 Alkatearen Dekretu bidez, honakoa erabaki zuen Debako Udalak:

Lehenengo. Deba-ko hilerri berriaren obra proiektua egiteko 0426638D zenbaki finkodun Poligono 28 partzela 71 lursailaren eskuratzea beharrezkotzat jotzea

Bigarren. Obra honen onura publikoa edo interes orokorra aitortzea eta obra hori egiteko derrigorrezko desjabetzea egiteko administrazio espedientea hastea, ebazpen honen eranskineko ondasun eta eskubideak okupatzeko premia onartuz.

Hirugarren. Ebazpen honen eranskineko ondasun eta eskubideak eta euren titularren zerrenda hasiera batean onartzea.

Laugarren. Ebazpen honen eranskineko ondasun eta eskubideak presazko bidea erabiliz okupatu behar direla aitortzea.

Bostgarrena. Ebazpen honen eranskineko ondasun eta eskubideen zerrenda eta euren titularrak jendaurrean jartzea eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara ematea.

Seigarrena. Interesdunei jakinaraztea desjabetze espedientea, eta dokumentazio guztia ikusgai egongo dela udaleko bulegoetan, eta aldizkarian argitaratzen den egunetik 15 lanegun barruan, Debako udal Idazkaritzan espedienteari buruzko edo ondasun eta eskubideetan egon litezkeen akatsak zuzentzeko alegazioak aurkeztu ahal izango dituztela.

Aipatutako epe horren barruan alegaziorik aurkeztuko ez balitz, proiektua eta ondasunen zerrenda behin betiko onartutzat har daiteke.

Zazpigarrena. Debako Udala izendatzea administrazio desjabetzaile eta, aldi berean, desjabetzearen hartzaile.

Zki finkoa	Polig.	Partzela	Jabea	Helbidea	Udalerrria	M2
0426638D	28	71	Ibon eta Nerea Iciar Oñederra Garcia.	Artzabal auzoa	Deba	19.977

Deban, 2018ko azaroaren 22an. Alkatea, Pedro Bengoetxea Loiola.

